# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 1636

*EDIKTUA, Familia eta Komunitate Politikarako zuzendariarena, jarraian adierazten den espedienteari buruzkoa (L-2012-48-3401-I).*

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Familia eta Komunitate Politikarako zuzendari José Luis Madrazo Juanes jaunak honako ediktu hau eman du:

EDIKTUA

Ezin izan zaio esanbidez jakinarazi Vilma Maricela Tambaco Aguilar andreari, L-2012-48-3401-I espedientean hark emandako helbidean, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzei buruzko abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuan bildutako diru-laguntzaren ebazpena.

L-2012-48-3401-I espedientean emandako ebazpenaren testu osoa interesdunarentzat eskuragarri dago Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao).

Ukatzeko ebazpen bat dela aintzat hartuta, ediktu hau jendaurrean erakusgai jarri da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua eta aplika daitezkeen gainerako xedapen osagarriak betez.

Adierazten den espedientearen gainean emandako ebazpenak ez du amaitzen administrazio-bidea, eta, horren aurka, gorako errekurtsoa aurkez daiteke Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Gaietako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ediktu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan agindutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 28a.

Familia eta Komunitate Politikarako zuzendaria,
JOSE LUIS MADRAZO JUANES.